

ZIBERGELA

Urte zahar, urte berri (II)



Teknologia berdea eta Interneteko konexioa edonon izateko aukera nagusituko dira aurten

IBON AIZPURUA UGARTE
Eleka ingeniari-tza linguistikoa

Duela hamabost egun 2007aren laburpena egin ondoren, gaur 2008an ustez nagusituko diren produktu, zerbitzu eta joerak laburbilduko ditugu. Ez da beti asmatzen, eta jakina da hemen azalduko diren joerak eta produktu guztiak ere ez dutela arrakasta bera lortuko; are gehiago, batzuek porrot ere egin dezakete. Baina, lehen batean, eta urtearen hasieran indargahien dutenak dira.

Iaz nagusitu ziren joerak indartsu jarraitzeko aukera izango dute; horrela, web 2.0 teknologiek aurten ere nagusi izaten jarraituko dute. Bestalde, aurten helduko diren joera nagusien artea edonon Interneteko konexioa izatea eta teknologia berdeak nabarmenduko dira. Gailu berriak, teknologiak berriak eta filosofia aldaketak, guztiak izan nahi dute 2008an nagusi. Guztiak lortuko al dute?

Beti konektatuta

Internet mugikorra guztiontzat badator, hau da, etxeko ordenagailuaren aurrean egon edo gailu mugikor batekin kalean, Internetera konektatzeko aukera izango da. Aukera hori gaur egun ere badago, teknologia existitzen da, baina telefonia enpresek ezartzen dituzten tarifekin ezinezkoa da etengabeko konexioa izatea. Merkatuan gero eta gailu mugikor gehiago azaltzen ari dira Internetera konektatu daitezkeenak, eta horrek badirudi telefonia enpresak prezioak jaistera bultzatuko

dituela. Beraien esku dago. Etengabeko konexioari GPS teknologia gehituz gero, uneoro jakingo da norberaren eta bere kontaktuen kokapena. GPSdun gailu mugikorrek aurkitzea ohikoa bihurtzen ari da, eta horri Google Maps bezalako tresna erantsiz gero, etengabe aurki daiteke erabiltzailea.

iPhone

Europako beste herrialde batzuetan jada merkatuan da Apple-en azken-aurreko harribitxia, hemen maiatzean merkaturatzea espero da. Telefonikak berak soilik merkaturatzeko tratua egin zuen Apple-ekin eta Movistar marka erabiliko du horretarako. Beste batzuen artean, iPhone funtzionalitate nagusienak ondorengoak dira: Interneten nabigatzeko erraztasunak, haririk gabe

Web 2.0 teknologiek aurten ere nagusi izaten jarraituko dute

ko konexioa, iPod-ak dituen ezaugarri guztiak eta ukimenezko pantaila handia. Horiek guztiak gailu bakar batean.

Mota honetako gailuen merkata asko handituko den esperantza dago, eta Applek izango ditu bertan lehiakideak, hala nola Nokia, LG eta Samsung etxeek prestatutako beraien gailuak iPhone-ekin lehiatzeko.

Teknologia berdea

Ordenagailuen fabrikazioak eta beraien erabilerak ingurumenaren gainean duen eraginaz arduratzen hasi da sektorea, aldaketa klimatikoaren auziak teknologia berrien industria ere ukitu du. Hori dela eta, informazioaren teknologia berdeak (Green IT ingelesez) gero eta gehiago entzungo dira 2008an. Gartner aholkularitza enpresaren txosten batek dioenez, informazioaren teknologien inguruan egiten den fabrikazioak, garraioak eta erabilerak munduko guztizko karbono isuriaren %2 sortzen du. Hori dela eta, enpresa handiek dituzten konputazio beharrak ingurumenarekiko ahalik eta modu errespetagarrienean betetzeko estrategiak garatzen ari dira. Baita ordenagailu pertsonala erosterako orduan ere, gero eta arruntagoa izango da duen energia kontsumoa bezalako datuak kontuan hartzea.

Segurtasuna

2008an segurtasuna ere nagusi izango da; teknologia berriak garatzen doazen neurrian horiek jasaten dituzten erasoak ere hazi egiten baitira. Horrela, aurten Web 2.0 teknologian oinarritutako webguneak, ahots bidezko telefonia eta berehalako mezularitza izango dira erasotzaileen helburu. Horiez gain, sareko jokoek eta nola ez, Windows Vista sistema eragileak ere eraso horien biktima izateko aukera handiak dituzte.

Publizitate pertsonalizatua

Publizitatea gero eta pertsonalizatua izango da, jada ez du balio erabiltzaile guztiei mezu orokor bat bidaltzeko. Erabiltzaile bakoitzari bere gustoen, izaeraren eta, azken batean, Interneten duen profilaren arabera publikitatea iritsiko zaio. Horretan sare sozialetan paper garrantzitsua jokatzen dute, izan ere, erabiltzaileez gehien dakitenak beraiek baitira.

Horrez gain, ez da ahaztu behar bideotan ere gero eta publikitate gehiago ikusiko dela, eta, gainera, edukiarekin erlazioa izango duena.

Denborak esango du hemen esandakotik zer gauzatu den eta zer ez.



Apple-en 2008rako uztza

Aurreko astean burutu zen Apple-ek antolatzen duen MacWorld feria; bertan, aurten urterako prestatu dituzten produktuak aurkeztu ziren. Jardunaldi horietan ohikoa bihurtzen ari da Apple-en buru Steve Jobsek produktu horiek aurkeztea; horretarako, bere ikuskizuna egiten du. Aurten ere horrela egin, eta ordu erdian 2008rako prestatu duten uztza aurkeztu zuen.

Uzta horretan izar nagusietako bat MacBook Air ordenagailu eramangarri berria izan zen. Ordenagailu eramangarriaren ezaugarriak dira: mehetasuna, arintasuna eta diseinu dotorea. Badiu desabantaila batzuk ere, izan ere, ez baitu DVD irakurgailu/grabagailurik ezta Ethernet sareetako konektatzeko konexiorik ere. Gainera, bateria ere ezin zaio aldatu eta prezio aldetik ere ez da batere merkea.



Sun-ek MySQL erosi du

Sun Microsystems informatika munduko erraldoiak MySQL datu base ezaguna erosi du. Horrela, orain arte presentziarik ez zuen arlo batean, datu basea, alegia, indarrez sartzea lortu du. MySQL kode irekian garatutako datu base ezaguna da, eta hainbat aplikaziotan erabiltzen da, webguneak garatzeko ere asko erabiltzen da.

Hemendik aurrera, bi erakundeetako pertsonen osatutako lantalde batek, guztien mesederako izango den integrazio plan bat garatzeari ekingo diote. Egindako salerosketa mila milioi dolarrekoa izan da.



Gazte bat Londresko Apple-aren denda iPhone bat erosi berri. JONATHAN BRADY / EFE